ELURREZKO PANPINA

Negua zen eta elurte izugarria egin zuen.
Herriko neska-mutilak pozik zebiltzan elurrezko panpina egiten.

-Zer gertatzen zaizu? Zergatik zaude triste?- *galdetu zion Ikerrek.*

-Zuek pozik zabiltzate jolasean, baina laster eguzkia irtengo da eta ni betiko desagertuko naiz.

-Badakit zer egin. Eguzkiak zure gorputza urtzen duenean, guk zure sudurra, txapela eta bufanda kutxa batean gordeko ditugu hurrengo negua iritsi arte- *esan zion Mirenek.*

Hori entzutean, elurrezko panpinak irribarre egin zuen eta pozik geratu zen.

>>>

1. Noiz egin zuen elurtea?

2. Nola zeuden herriko neska- mutilak?

3. Nork egin zuen elurrezko panpina?

4. Zer galdetu zion Ikerrek?

5. Zergatik desagertuko zen elurrezko panpina?

6. Zer gordeko dute haurrek?

7. Noiz arte gordeko dute?

8. Zenbat gauza gordeko dituzte?

9. Hori entzutean, zer egin zuen panpinak?

10. Nola geratu zen elurrezko panpina?

LIVEWORKSHEETS